

GAIXOTASUN PROFESIONALAREN SUSMOEN JAKINARAZPENAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN 2024

2014-2024 URTEETAKO BILAKAERA
2024 URTEKO ANALISI-TXOSTENA

OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Gaixotasun profesionalen susmoen jakinarazpenak Euskal Autonomia Erkidegoan

2014-2024 urteetako bilakaera
2024. urteko analisi-txostena

Txostenaren egileak:

Fernando González Carril

Jasone Idiazabal Garmendia

Leire Martínez Echevarria

Marga Mazas Alberdi

OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Laneko Osasuneko Unitateko Epidemiologia eta informazio-sistemen arloa.

2025eko azaroa.

Laburdurak

AE	Arreta espezializatua
LM	Lehen mailako arreta
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
GNS	Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena
GPSA	Gaixotasun profesionalaren susmoaren adierazpena
GP	Gaixotasun profesionala
IM	Osasun Sailaren Ikuskaritza Medikoa
GSIN	Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala
GSML	Gizarte Segurantzako mutualitate laguntzaileak
O	Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzua
ESI	Erakunde sanitario integratua (Osakidetzakoa)
GPS	Gaixotasun profesionalaren susmoa
PZ	Prebentzio-zerbitzua
KPZ	Kanpoko prebentzio-zerbitzua
PZP-PZM	Prebentzio-zerbitzu propioa - Prebentzio-zerbitzu mankomunatua
LOU	Laneko Osasuneko Unitatea

Edukien taula

TAULEN AURKIBIDEA.....	6
GRAFIKOEN AURKIBIDEA.....	7
AURKEZPENA.....	8
1. SARRERA ETA HELBURUAK.....	9
2. METODOA.....	10
2.1 Datu-iturria eta aztertutako denbora-tartea	10
2.2 Aztertutako populazioa, sartzeko irizpideak eta kanporatzeko irizpideak.....	10
2.3 Aztertutako aldagaiak eta erabilitako maiztasun-neurriak.....	11
3. EMAITZAK	12
3.1 GAIXOTASUN PROFESIONALAREN SUSMOAREN (GPS) JAKINARAZPENEN BILAKAERA (2014-2024).....	12
3.1.1 GPSen bilakaera (2014-2024): Intzidentzia	12
3.1.2 GPSen bilakaera (2014-2024), sorburuaren eta jatorriaren arabera	14
3.1.3 GPSen bilakaera (2014-2024), diagnostiko-taldearen arabera.....	17
3.1.4 GPSen bilakaera (2014-2024): GParen onarpen-maila	18
3.2 2024. URTEAN IZAPIDETUTAKO GPS JAKINARAZPENEN ANALISIA	19
3.2.1 Lurraldea, sorburua eta jatorria	19
3.2.2 Lurraldea eta sexua.....	20
3.2.3 Adina eta sexua.....	20
3.2.4 1299/2006 EDko diagnostiko-taldeak.....	21
3.2.5 Agente eragilea	23
3.2.6 Sektoreak.....	24
3.2.7 Ebazpenak	28
4. ONDORIOAK.....	30

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1. GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa. EAE, 2014-2024

Taula 2. GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa sexuaren arabera. EAE, 2014-2024

Taula 3. Jakinarazpenen kopurua jatorriaren arabera. EAE, 2014-2024

Taula 4. Jakinarazpenen jatorria, ESlaren arabera. EAE, 2014-2024

Taula 5. Jakinarazpenen jatorria PZ motaren arabera. EAE, 2014-2024

Taula 6. Jakinarazpenen jatorria prebentzio-zerbitzuen arabera. EAE, 2024

Taula 7. Jakinarazpenen kopurua diagnostiko-taldearen arabera. EAE, 2014-2024.

Taula 8. Jakinarazpenen guztizko kopurua eta emaitza sorburuaren arabera. EAE, 2024

Taula 9. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2024

Taula 10. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua GNS ohikoenen eta sexuaren arabera. EAE, 2024

Taula 11. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua agente eragilearen eta sexuaren arabera. EAE, 2024

Taula 12. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua agente eragilearen eta sorburuaren arabera. EAE, 2024

Taula 13. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera. EAE, 2024

Taula 14. Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera; gizonak. EAE, 2024

Taula 15. Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera; emakumeak. EAE, 2024

Taula 16. Epikondilitisaren eta karpoko kanalaren sindromearen jakinarazpenen kopurua, ebazpenaren eta sexuaren arabera. EAE, 2024

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa 1. GPS jakinarazpenen intzidentzia-indizea eta kopurua. EAE, 2014-2024

Grafikoa 2. GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa lurraldearen arabera. EAE, 2014-2024

Grafikoa 3. GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa sexuaren arabera. EAE, 2014-2024

Grafikoa 4. Jakinarazpenen kopurua sorburuaren arabera. EAE, 2014-2024.

Grafikoa 5. Onartutako jakinarazpenen ehunekoa sexuaren arabera. EAE, 2014-2024

Grafikoa 6. Onartutako jakinarazpenen ehunekoa sorburuaren arabera. EAE, 2014-2024

Grafikoa 7. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta sorburuaren arabera. EAE, 2024

Grafikoa 8. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta sexuaren arabera. EAE, 2024

Grafikoa 9. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2024

Grafikoa 10. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua 1299/2006 EDko gaixotasun profesionalen taldeen arabera. EAE, 2024

Grafikoa 11. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua GNS ohikoenen arabera. EAE, 2024.

Grafikoa 12. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua sektorearen arabera. EAE, 2024

Grafikoa 13. Jakinarazpenen kopurua sektorearen arabera; gizonak. EAE, 2024

Grafikoa 14. Jakinarazpenen kopurua sektorearen arabera; emakumeak. EAE, 2024

Grafikoa 15. Izapidetutako jakinarazpen eta ebazpenen ehunekoa sexuaren arabera. EAE, 2024

Grafikoa 16. Izapidetutako jakinarazpen eta ebazpenen guztizko kopurua sorburuaren arabera. EAE, 2024

AURKEZPENA

Urtero, OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, Eusko Jaurlaritzaren mendeko organismo autonomoak, txosten bat egiten du Euskal Autonomia Erkidegoan jakinarazi diren gaixotasun profesionalaren susmoak aztertzeko. Gaixotasun profesionalaren susmoaren adierazpen-prozedura azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretuan oinarritzen da (Gizarte Segurantzaren sistemako gaixotasun profesionalen koadroa onartzen duen eta gaixotasun horiek jakinarazteko eta erregistratzeko irizpideak ezartzen dituen Errege Dekretua), eta, horren arabera, Osasun Sistema Nazionaleko eta prebentzio-zerbitzuetako fakultatiboek gaixotasun profesionaltzat jo daitezkeen gaixotasunak jakinarazi behar dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoan, honako arau hauen mende dago gaixotasun profesionalen susmoak deklaratzeko sistema: 2007ko abenduaren 26ko Jarraibidea, Osasuneko sailburuordearena, Osalaneko zuzendari nagusiarena eta Osakidetza zuzendari nagusiarena, Laneko gaixotasuntzat jo daitezkeen edo jatorria lanbidean dutela susmatzen den gaixotasunak jakinarazteko prozedurari buruzkoa; eta 2007ko abenduaren 11ko Ebazpena, Osalaneko zuzendari nagusiarena, Prebentzio-zerbitzuek lanbide-gaixotasuneko kasu susmagarriak Osalanen Lan Osasuneko Unitateari jakinarazteko prozesua ezartzen duena. Aipatutako sistemaren helburua da gaixotasun horien adierazpena erraztea eta bultzatzea.

Horrela, sistema publikoko zein prebentzio-zerbitzuetako osasun-zerbitzuetatik gaixotasun profesionalen identifikazioa eta jakinarazpena areagotuz, eta gaixotasun profesionalen arloan Gizarte Segurantzaren babes-ekintzarako eskubidean langileekin lankidetzan arituz, arlo horretako ezagutza sustatuko dugu, hori funtsezkoa baita laneko osasunaren arloko prebentzio-planak eta -programak garatu ahal izateko.

Zalantzarik gabe, sistema hori sustatzeko egindako lan jarraituari esker, 2024an jasotako jakinarazpenen kopurua nabarmen handitu da 2023. urtearekin alderatuta, 2022an hasitako joera berretsiz. Halaber, emakumeen jakinarazpenen intzidentzia-tasak ere eragina izan du gorakada horretan; izan ere, 2024koa handiena izan da jakinarazpen-sistema abiatu zenetik, eta ia gizonen tasaren parekoa izatera iritsi da.

Lourdes Íscar Reina

OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia

1. SARRERA ETA HELBURUAK

Gaixotasun profesionalaren susmoa (GPS) jakinarazteko prozedurak azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretuan du oinarri juridikoa (Gizarte Segurantzaren sistemako gaixotasun profesionalen koadroa onartu eta horien jakinarazpen eta erregistroa egiteko irizpideak ezartzen ditu dekretu horrek).

Errege-dekretu horrek agintzen du aldatu egingo dela jakinarazteko eta erregistratzeko sistema, eta prozedura hori susmo-diagnostikoa egin dezaketen langile medikoekin lotuko dela, gaixotasun profesionalen adierazpena errazte aldera, *Gaixotasun profesionaltzat jo daitezkeen gaixotasunen jakinarazpena* izenburuko 5. artikulua bidez.

Artikulu hori Euskal Autonomia Erkidegora (EAE) egokitzeko, GAIXOTASUN PROFESIONALEN SUSMOA JAKINARAZTEKO sistema bat eratu da, eta, sistema horren arabera, Osalan – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Laneko Osasuneko Unitateak eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Ikuskaritza Medikoek izango dituzte arloan eskumenak.

Sistema hori honako arau hauen mende dago: 2007ko abenduaren 26ko Jarraibidea, Osasuneko sailburuordearena, Osalaneko zuzendari nagusiarena eta Osakidetzako zuzendari nagusiarena, Laneko gaixotasuntzat jo daitezkeen edo jatorria lanbidean dutela susmatzen den gaixotasunak jakinarazteko prozedurari buruzkoa; eta 2007ko abenduaren 11ko Ebazpena, Osalaneko zuzendari nagusiarena, Prebentzio-zerbitzuek lanbide-gaixotasuneko kasu susmagarriak Osalanen Lan Osasuneko Unitateari jakinarazteko prozesua ezartzen duena (2008-01-17ko EHAA, 12. zk.).

Euskal Autonomia Erkidegoan, Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuko medikuak eta prebentzio-zerbitzuetako medikuak sartuko dira prozedura horretan, eta haiek eman ahal izango dute susmo-diagnostikoa.

GPSak jakinarazteko prozedura 2008an jarri zen abian EAEn. “Gaixotasun profesionalaren susmoaren adierazpena (GPSA)” izeneko aplikazio informatikoaren bidez erregistratzen eta kudeatzen dira susmo-jakinazpenak. Aplikazio hori partekatzen dute Osalaneko Laneko Osasuneko Unitateek eta Osasun Saileko Ikuskaritza Medikoek. EAEko Gizarte Segurantzako 7 mutualitate laguntzaile (GSML) nagusiek erabiltzen dute aplikazio hori, beren aplikatiboen bidez, bai eta EAEn baimenduta dauden prebentzio-zerbitzuek ere, “Gutxieneko Datu Multzoa” aplikazioaren bidez.

Jakinazpenak dagozkien GSMLei igortzen zaizkie web-zerbitzuaren bidez, amianto agente eragile duten gaixotasunak izan ezik, horiek GSINera igortzen baitira, “GISNren, EAEko Administrazio Orokorren, Osakidetzaren eta Osalanen arteko lankidetzaren hitzarmen espezifikoa” xedatzen den eran.

GPSak jakinarazteko sistema horren xedeak honako hauek dira, beste batzuen artean:

- Gaixotasun profesionalen adierazpenak erraztea.
- Sistema publikoko osasun-zerbitzuek eta prebentzio-zerbitzuek gaixotasun profesionalak neurri handiagoan identifikatzea eta jakinaraztea.
- Langileek GPen arloan Gizarte Segurantzaren babesa jasotzeko duten eskubidea sendotzea.
- Osasunari buruzko datuen iturri bat izatea, laneko osasunaren esparruan prebentzio-programak prestatu ahal izateko.

2. METODOA

Txosten honetan, GPS jakinarazpenen ezaugarri nagusien azterketa deskriptiboa egiten da, 2 atal nagusitan banatuta. Alde batetik, 2014tik 2024ra bitartean jasotako jakinarazpenen kopuruaren denbora-bilakaera aztertu da, 2024an jasotako jakinarazpen guztien ezaugarri nagusiak nabarmenduz. Bestetik, urte horretan izapidetutako eta GSML eta GSINera baloratzeko bidalitako jakinarazpenei buruzko deskribapen-analisi zehatzagoa egin da.

2.1 Datu-iturria eta aztertutako denbora-tartea

GPS jakinarazpenei buruzko txosten hau egiteko, datu-iturria izan zen espedienteak izapidetzeko erabilutako GPSA aplikazio informatikoan sortutako fitxategia. Gainera, Gizarte Segurantzaren afiliatutako EAEko langileen datuak erabili ziren informazio-iturri gehigarri gisa.

Jasotako jakinarazpenek denborak aurrera egin ahala izandako bilakaera aztertzeko, 2014tik 2024ra bitarteko datuak erabili ziren.

2024ko jakinarazpenen azterketa deskriptiboa egiteko, GPSA aplikazioan 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte erregistratutako jakinarazpenetako informazioa erabili zen.

Ebatzitako espedienteak zenbatu ahal izateko, azaroaren 4ra bitarte jasotako datuak bildu ziren. Ildo horretatik, jaso dira, gerora, aurreko urteetako espedienteen jakinarazpenen gaineko beste ebazpen batzuk; beraz, posible da onartutakoen eta baztertutakoen azken kopurua aldatu izana.

2.2 Aztertutako populazioa, sartzeko irizpideak eta kanporatzeko irizpideak

EAEko enpresetako langile guztiak sartu ziren aztertutako populazioan, langileen bizitokia EAetik kanpo bazegoen ere.

Jakinarazpenak izapidetzeko prozeduran, aurretiazko zenbait egiaztapen egin ziren, azkenean GPSak izapidetuko ziren ala ez erabakitzeko.

2014tik 2024ra bitartean jasotako jakinarazpenen kopuruaren denbora-bilakaera eta 2024an jakinarazitakoak aztertzeko, jasotako GPS jakinarazpen guztiak hartu dira kontuan, bai izapidetuak bai izapidetu gabeak.

GSMLetara eta/edo GSINera bidali ziren 2024ko jakinarazpenen azterketa deskriptiboak jakinarazpen hauek baztertu zituen: 1299/2006 EDko Gaixotasun Profesionalen Koadroaren zerrendan ageri ez ziren diagnostikoak zituztenak; lehendik izapidetuta zeudenak; lanbide-kontingentziengatik prestaziorako eskubiderik ez zuten langileei zegozkienak; eta lehendik GP gisa aitortuta zeudenak. Halaber, ikertu ondoren, alde batera utzi ziren txostena bidaltzea ez zela egokia erabaki zen jakinarazpenak, bai eta prozedurarekin jarraitzeari uko egin zioten kaltetuenak zein beren lan-bizitzari buruzko informaziorik eman ez zutenenak ere.

Azken puntu horri buruz, esan behar da azterketan sartu zirela, Gizarte Segurantzaren zuten egoera alde batera utzita, erretiratutako pertsonen eta langabezia-egoeran zeuden pertsonen jakinarazpenak, une horretan prestazioa jasotzeko eskubiderik izan ez arren, lan-egoera aktiboko langile zirenean GP aitortzeko eskubidea baldin bazuten.

Aipatu behar da, halaber, 2020. urtean ekin zitzaiola Gizarte Segurantzako Araubide Berezian kotizatzen zuten norberaren konturako langileen edo autonomoen azterketari.

2.3 Aztertutako aldagaiak eta erabilitako maiztasun-neurriak

Honako aldagai nagusi hauek bildu ziren azterketarako:

DIMENTSIOA	ALDAGAI DESKRIBATZAILEA
Pertsona	Sexua
	Adina
Jakinarazpenen jatorria	Sorburua (O/PZ)
	AE/LM/IM (ESI)
	PZ/LOU (PZ mota)
Gaixotasuna	Diagnostikoa (GNS, diagnostiko-taldeak, 1299/2006 ED taldea)
Lana	Enpresaren kokapena (lurraldea)
	Agente eragilea
	Sektorea
Ebazpena	Onartzea / Ez onartzea

GPSak Osakidetzatik eta prebentzio-zerbitzuetatik jakinarazi ziren, eta horrek izena eman zien bi sorburuei: Osakidetza (O) sorburua eta Prebentzio Zerbitzua (PZ) sorburua.

O sorburuko jakinarazpenen iturria aztertzeke, bere aldetik, honako atal hauek banatu ziren: Lehen Mailako Arreta (LM), Arreta Espezializatua (AE) eta Ikuskaritza Medikoa (IM). PZ sorburua, bere aldetik, Prebentzio Zerbitzutik (PZ) zetozenen eta Laneko Osasuneko Unitatetik (LOU) zetozenen artean banatu zen.

Osakidetzako langile fakultatiboen jakinarazpenen jatorria aztertzeke, zer osasun-etxetatik zetozen kontuan hartu eta ESIaren arabera multzokatu ziren. Prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboen jakinarazpenen jatorria aztertzeke, jasotako jakinarazpenak PZ motaren arabera multzokatu ziren: alde batetik, kanpoko prebentzio-zerbitzuetatik (KPZ) zetozenak, eta, bestetik, prebentzio-zerbitzu propioetatik edo mankomunatuetatik (PZP-PZM) zetozenak.

Jakinarazpenak jarduera-sektoreka aztertzeke, EJSN 09 Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren arabera kodetu ziren, eta bi digitutara multzokatu ziren.

Txosten honetan egindako azterketa deskriptiborako, aztertutako aldian jasotako jakinarazpenetako zenbakiak edo zenbaketak erabili ziren batez ere, eta baita ehunekoak ere. Bestalde, 2014tik 2024ra bitartean jasotako jakinarazpenen kopuruaren denbora-bilakaera aztertzeke, tasak erabili ziren, Gizarte Segurantzaren afiliatutako EAEko langileak erreferentziazat hartuta. Taula eta grafiko gehienetan, sexu-aldagaiaren eta sorburu-aldagaiaren arabera banatu ziren emaitzak.

Datuak aztertzeke, Oracle© Analytics Answers programa erabili zen, eta grafikoak eta taulak Excel 2016 programaren bidez sortu ziren.

3. EMAITZAK

3.1 GAIXOTASUN PROFESIONALAREN SUSMOAREN (GPS) JAKINARAZPENEN BILAKAERA (2014-2024)

3.1.1 GPSen bilakaera (2014-2024): Intzidentzia


EAEn GPSen jakinarazpen-prozedura ezarri zenetik, 2010. eta 2012. urteak nabarmendu ziren intzidentzia-tasa handiagoa izateagatik, prebentzio-zerbitzuetatik helarazitako jakinarazpenen ondorioz, aurreko analisietan jakinarazi den bezala.

2014. urtetik aurrera, 1. grafikoan ikus daitekeenez, jakinarazpen-tasak beheranzko joera izan du urtez urte, 2022. urtera arte; hortik aurrera, berriz, susperraldi bat hasi zen, eta goranzko erritmo nabarmena mantendu zen 2024ra arte. 2023 baino lehenagoko analisietan, Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) argitaratutako EAEko biztanleria zenbatetsiaren datuak erabili ziren intzidentzia-tasak kalkulatzeko. Urte horretatik aurrera, Gizarte Segurantzara afiliatutako EAEko langileak erabili dira aztergai gisa, Osalanen gainerako txosten estatistikoekin irizpideak bateratzeko; beraz, aurreko urteetako analisiekin alderatuta, intzidentzia-tasaren datuak aldatu egin dira.

Taula 1. GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa. EAE, 2014-2024


	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Intzidentzia-tasa %	0,98	0,79	0,78	0,57	0,6	0,46	0,43	0,4	0,49	0,82	1,1
Jakinarazpenen kopurua	709	585	587	443	478	432	394	372	469	791	1132

Grafikoa 1. GPS jakinarazpenen intzidentzia-indizea eta kopurua. EAE, 2014-2024



Lurraldeka, intzidentzia-tasa gutxitu egin zen 2014tik 2020ra arte, Bizkaian izan ezik, bertan gorakada txiki bat izan baitzen 2018an. 2021etik aurrera, 2. grafikoan ikus daitekeenez, gorakada bat izan da hiru lurraldeetan, eta 2024an igoera nabarmena izan da Araban eta Gipuzkoan. Lurralde horietan, intzidentzia-tasak, % 1,3 eta % 1,08ra iritsi ziren hurrenez hurren, 2023ko % 0,67 eta % 0,68tik gora. Bizkaian, urteko hazkundera % 0,98tik % 1,08ra igo zen.

Grafikoa 2. GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa lurraldearen arabera. EAE, 2014-2024




Hasiera batean, aztertutako aldiko intzidentzia-tasa totala zuzenean lotuta zegoen gizonen jakinarazpenekin, emakumeenak baino ugariagoak izan baitziren.

Hala ere, 2023an joera hori aldatu egin zen, aurreko urteetako jakinarazpen-tasa emakumeen artean ia bikoiztu egin zelako; 2024an, berriz, gizonen tasaren ia parean egon da, 2. taulan eta 3. grafikoan ikusten den bezala.

Taula 2. GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa sexuaren arabera. EAE, 2014-2024

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
GIZONEN INTZIDENTZIA-TASA ‰	1,63	1,31	1,24	0,87	0,8	0,69	0,55	0,55	0,61	0,94	1,2
EMAKUMEEN INTZIDENTZIA-TASA ‰	0,3	0,25	0,29	0,26	0,39	0,21	0,29	0,24	0,37	0,68	1

Grafikoa 3. GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa sexuaren arabera. EAE, 2014-2024




3.1.2 GPSen bilakaera (2014-2024), sorburuaren eta jatorriaren arabera

Jakinarazpen-sistemaren hasiera-hasieratik, jakinarazpen gehienek sorburua prebentio-zerbitzuetako langile fakultatiboak izan ziren, baina 2020. urtean joera hori alderantzikatu egin zen, eta horrela jarraitu zuen 2024. urtean, 4. grafikoa ikus daitekeen bezala.

2024. urtean, GPSen 1.132 jakinarazpen jaso ziren: 892 jakinarazpen Osakidetzatik, eta 240 Prebentzio Zerbitzuetatik.

Aurreko urtearekin alderatuta, eta sorburuaren arabera diferentziak nabarmenak badira ere, aipagarria da PZek egindako jakinarazpenen hazkundea 2023arekin alderatuta, % 50 ingurukoa izanik.

Grafikoa 4. Jakinarazpenen kopurua sorburuaren arabera. EAE, 2014-2024.



3. taulan, 2014-2024 aldian jatorri bakoitzetik jasotako jakinarazpenak agertzen dira. 2022az geroztik, jatorri nagusia Osakidetzako Lehen Mailako Arreta izan da; eta nabarmentzekoa da, 2024an gertatu zen bezala, Osakidetzako langileek egindako jakinarazpenen % 80 LMtik datorrela.

Osakidetzatik jakinarazitako GPS guztietatik, 80 jakinarazpen norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziari atxikitako langileenak izan ziren; 69 LMtik eta 11 AEtik.

Taula 3. Jakinarazpenen kopurua jatorriaren arabera. EAE, 2014-2024

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
ARRETA ESPEZIALIZATUA	26	52	118	74	161	142	91	72	89	99	165
LEHEN MAILAKO ARRETA	29	12	26	16	7	32	134	126	206	549	710
IKUSKARITZA MEDIKOA	9	7	2	6	4	4	5		2	13	17
PREBENTZIO-ZERBITZUA	643	508	440	340	306	254	160	173	170	129	240
LANEKO OSASUNeko UNITATEA	1	5	1	7			4	1	2	1	

4. taulan, 2014. urtetik ESletatik jasotako jakinarazpenak agertzen dira. 2024. urtean, Osakidetzatik eskuratutako jakinarazpenak sareko 161 osasun-zentrotan hasi ziren; 2023an, aldiz, 125 zentrotan abiarazi ziren.

Nabarmentzekoa da ESI hauetatik iritsitako jakinarazpenen gorakada: ARABA, EZKERRALDEA-ENKARTERRI, URIBE, BARAKALDO-SESTAO eta, bereziki, DEBABARRENA; azken hori 2tik 26 jakinarazpenera igaro zen.

Taula 4. Jakinarazpenen jatorria, ESlaren arabera. EAE, 2014-2024

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
BARRUALDE-GALDAKAKO ESla	12	15	35	35	41	74	43	53	65	230	167
BILBAO-BASURTUKO ESla	2	16	49	31	51	44	55	48	67	168	190
DONOSTIALDEKO ESla	3	4	2	8	14	13	28	21	31	76	108
ARABAKO ESla	10	7	12	5	1	7	9	26	28	43	120
ARABAKO ERRIOXAKO ESla											
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESla	8	14	24	7	29	21	27	20	32	36	74
GOIERRI-UROLA GARAIKO ESla	7	5	3	6	10	6	18	16	29	34	52
URIBEKO ESla	2		3	6	1	8	17	4	18	24	59
BIDASOKO ESla	1					1	2	1	6	18	17
BARAKALDO-SESTAOKO ESla	2	1	6	1	3	3	6		7	16	36
TOLOSALDEKO ESla		1		1	3	2	9	4	2	9	10
DEBAGOIENeko ESla	7	2	4			1	4	3	10	5	18
DEBABARRENEKO ESla	2		4	2	1	1	19	2	2	2	26
INFORMAZIOARIK GABE	9	7	4	3	1	3	7				13
Batura, guztira	56	72	142	102	154	181	237	198	297	661	890

5. taulan, azken 10 urteotan prebentzio-zerbitzuetatik jasotako jakinarazpenak sailkatu dira, prebentzio-zerbitzuaren arabera: KPZ edo PZP-PZM. Kanpoko prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboak izan dira jakinarazle nagusiak urte guztietan.

Taula 5. Jakinarazpenen jatorria PZ motaren arabera. EAE, 2014-2024

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
KANPOKO PREBENTZIO-ZERBITZUAK	595	458	402	313	265	218	117	120	139	111	188
PREBENTZIO-ZERBITZU PROPIOAK ETA MANKOMUNATUAK	35	43	37	27	40	34	46	53	31	18	52
Batura, guztira	630	501	439	340	305	252	163	173	170	129	240

6. taulan zehazten da PZ deklaratzailerik 2024an egindako jakinarazpenen kopurua. KPZetako bat izan zen GPS jakinarazpenen % 55 komunikatzearen arduraduna.

Taula 6. Jakinarazpenen jatorria prebentzio-zerbitzuen arabera. EAE, 2024

PZ mota – Mediku jakinarazlea	PZ – Mediku jakinarazlea	ESPEDIENTE-KOP.
KPZ	IMQ PREVENCIÓN SM	133
KPZ	CFP SERVICIO DE PREVENCIÓN SM	14
KPZ	PREVITEK-PREVITASA SM	28
KPZ	ASPY PREVENCIÓN SM	1
KPZ	QUIRON PREVENCIÓN SLU	10
KPZ	PREVENDI CONSULTING SM	1
KPZ	SEGURLAN PREBENTZIOA SM	1
PZP-PZM	EUSKO JAURLARITZA - HEZKUNTZA SAILA	11

PZP-PZM	OSAKIDETZA – EUSKAL OSASUN ZERBITZUA	3
PZP-PZM	IMQ TALDEKO PZM	1
PZP-PZM	SAN PRUDENCIO PZM	17
PZP-PZM	EHU	1
PZP-PZM	EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUN SAILA	4
PZP-PZM	OSARTEN PZM	15

3.1.3 GPSen bilakaera (2014-2024), diagnostiko-taldeen arabera

7. taulan, jakinarazpenen azken 10 urteetako bilakaera ageri da, diagnostiko-taldeen arabera taldekatuta. Aurten, mesoteliomak eta sinu paranasaletako tumoreak gainerako tumoreetatik bereizi dira. Bereizketa horren arrazoia da 2024an sinu paranasaletako minbizirako mediku zelatarien sare bat ezarri zela maila nazionalen, besteak beste, jatorri profesionaleko esposizioen ondorioz horrelako tumoreen karga zein den jakiteko.

2024an diagnostiko gehienak igo direla ikusten da. Horietatik, jakinarazitako patologia guztien % 74,31 gaixotasun muskuloeskeletikoak izan ziren, aurreko urtearen antzera. Horrelakoen artean, intzidentzia handienekoak hauek izan ziren: epikondilitisa (taldeko guztien % 41), karpoko kanalaren sindromea (% 24), sorbaldako lesioak (% 11) eta De Quervain-en sindromea (% 10).

Aipagarria izan da, halaber, hipoakusien, gaixotasun dermatologikoen eta tumoreen gorakada. Azken talde horren barruan, mesoteliomen eta sinu paranasaletako tumoreen kasuen baturak minbizien hazkundearen % 66 eragin dute, bereziki azken hori nabarmentzen delarik.

Taula 7. Jakinarazpenen kopurua diagnostiko-taldearen arabera. EAE, 2014-2024.


	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
EPIKONDILITISA	40	41	38	23	35	48	83	74	90	218	294
KARPOKO KANALAREN SINDROMEAK	35	38	57	45	30	28	46	50	68	137	173
SORBALDAKO LESIOAK	17	12	8	10	17	21	18	19	32	78	87
HIPOAKUSIA	500	351	274	209	112	115	67	76	81	59	125
DE QUERVAIN-EN S.	8	7	6	3	5	7	14	13	17	54	77
BESTE GAIXOTASUN MUSKULOESKELETIKO BATZUK	3	10	4	3	6	12	16	22	36	50	85
MESOTELIOMAK	2	9	15	12	16	18	17	15	20	31	46
SINU PARANASALETAKO TUMOREAK					7	1	1			3	16
BESTE TUMORE BATZUK	6	14	16	18	21	15	17	17	13	16	30
PNEUMOKONIOSIAK	32	32	101	50	73	45	29	20	28	49	51
TUMOREA EZ DEN PLEURA-ALTERAZIOA	2	3	5	1	16	35	17	19	14	30	28
ASMA	17	21	18	12	61	26	15	7	13	20	29
GAIXOTASUN DERMATOLOGIKOAK	8	15	11	14	17	21	23	9	15	18	49
GAIXOTASUN INFEKZIOSOAK	9	8	5	22	44	17	25	21	25	12	16
NODULUAK AHOTS-KORDETAN	24	17	23	18	10	4	3	4	8	10	18
BESTE ARNASKETA-GAIXOTASUN BATZUK	2	5	3	2	6	14	3	4	5	5	5
GAINERAKO PATOLOGIAK	4	2	3	1	2			2		1	3

3.1.4 GPSen bilakaera (2014-2024): GParen onarpen-maila

5. grafikoan ikusten denez, 2022ra arte, oro har, GP gisa onartutako jakinarazpenen ehunekoa % 50–60 bitartean mantendu zen gizonen artean. Baina hortik aurrera % 30 ingurura jaitsi zen, eta aldaketa gutxiarekin mantendu zen.


Emakumeen kasuan, onarpen-ehunekoa aldakorra izan zen aztertutako aldian zehar, gorabehera askorekin. Nolanahi ere, gizonena baino txikiagoa izan zen urtero, 2024ra arteko beheranzko joera berari jarraituz. Urte horretan, susperraldi txiki bat gertatu zen, % 23tik % 27,6ra, eta generoen arteko diferentzia murriztu egin zen.

Grafikoa 5. Onartutako jakinarazpenen ehunekoa sexuaren arabera. EAE, 2014-2024



GP gisa onartutako jakinarazpenetan, ehunekoa % 25ean mantendu da aurreko urtearekiko jakinarazpenak Osakidetzatik zetozenean; KPZetatik etorritakoen kasuan, berriz, zertxobait igo zen 2024an, 6. grafikoak erakusten duen bezala.

Grafikoa 6. Onartutako jakinarazpenen ehunekoa sorburuaren arabera. EAE, 2014-2024



8. taulan, 2024an jasotako GPS jakinarazpen guztien banaketa ikus daiteke. Jakinarazpenen % 86 izapidetu dira, eta horien emaitza Txosten honetako “3.2.7. Ebazpenak” puntuan zehazten da.

Gizarte Segurantzara susmoak bidali aurretik, jasotako kasu bakoitzeko, CEPROSS sisteman gaixotasun profesionalaren parterik ba ote zegoen egiaztatu zen. 2024. urtean, hori gertatu zen 48 jakinarazpenetan, eta ez ziren, beraz, izapidetutako jakinarazpen moduan zenbatu (8 PZ sorburukoak ziren eta 40 O sorburukoak).

Metodologiaren zatian azaldu den bezala, baztertzeko beste irizpide batzuk ere egon ziren. Horrenbestez, beste 110 jakinarazpen geratu ziren Gizarte Segurantzara bidali gabe (2 PZkoak eta 108 Osakidetzaakoak).

Analisi hau ixten den unean, ez dago abian dagoen jakinarazpenik, eta izapidetutakoen % 19 mutualitateek edo GSINek erantzun zain daude.

Taula 8. Jakinarazpenen guztizko kopurua eta emaitza sorburuaren arabera. EAE, 2024

	AURRETIAZKO GP	EZ DA IZAPIDETU BEHAR	ABIAN	ZAIN ERANTZUNA	ONARTUTAKO GP	BAZTERTUTAKO GP	GUZTIRA
SORBURUA: PZ	8	2	0	16	122	92	240
JATORRIA: OSAKIDETZA	40	108	0	170	185	389	892
TOTAL	48	110	0	186	307	481	1132

3.2 2024. URTEAN IZAPIDETUTAKO GPS JAKINARAZPENEN ANALISIA


3.2.1 Lurraldea, sorburua eta jatorria

2024an jasotako 1.132 GPS jakinarazpenetatik, 974 jakinarazpen bidali ziren Gizarte Segurantzara, bertan baloratzeko (jakinarazpen guztien % 86). Gehienak Bizkaian jakinarazi ziren (455), eta ondoren datoz Gipuzkoa (309) eta Araba (210).

Hiru lurralde historikoetan, izapidetu beharreko jakinarazpen gehienak Osakidetzaako medikuek hasi zituzten, 7. grafikoan ikus daitekeen bezala.

Izapidetutako jakinarazpenetatik, 67 norberaren konturako langileei edo autonomoei zegozkien: 12 Araban, 42 Bizkaian eta 13 Gipuzkoan.

Grafikoa 7. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta sorburuaren arabera. EAE, 2024



9. taulan, izapidetutako jakinarazpenak agertzen dira sorburuaren eta jatorriaren arabera sailkatuta. Gehienak Osakidetza Lehen Mailako Arretatik (591) etorri dira, eta gainerakoak Osakidetza Prebentzio Zerbitzutik (230) eta Arreta Espezializatutik (138). Nabarmendu behar da Bizkaiko Lehen Mailako Arretatik 305 jakinarazpen izapidetu direla.


Taula 9. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2024

	ARRETA ESPEZIALIZATUA	LEHEN MAILAKO ARRETA	PREBENTZIO-ZERBITZUA	LANEKO OSASUNEKO UNITATEA	SORBURUA: IM	GUZTIRA
Araba	17	142	51	0	0	210
Bizkaia	73	305	65	0	12	455
Gipuzkoa	46	144	114	0	5	309
Guztira	136	591	230	0	17	974

3.2.2 Lurraldea eta sexua

8. grafikoak adierazten duen bezala, izapidetutako jakinarazpen gehienak gizonen gainekoak izan ziren hiru lurraldeetan. Guztira izapidetutako 974etatik, % 58 gizonenak izan ziren (567), eta % 42 emakumeenak (407). Ehuneko orokor horiek ez dira ia aldatu 2023arekin alderatuta. Baina, lurraldearen arabera alderatzean, Gipuzkoan ikusten da diferentziarik handiena sexuaren arabera.


Grafikoa 8. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta sexuaren arabera. EAE, 2024



3.2.3 Adina eta sexua

9. grafikoak erakusten duenez, GPS jakinarazpenen artean adin-tarterik ohikoena 50-64koa izan zen (470), eta, ondoren, 30-49 urtekoa (346), bai gizonetan bai emakumeetan.

Grafikoa 9. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2024




3.2.4 1299/2006 EDko diagnostiko-taldeak

10. grafikoan ikus daiteke nola banatu diren 1299/2006 EDan jasotako gaixotasun profesionalak sor ditzaketen jardura nagusien 6 taldeen jakinarazpenak 2024. urtean. 2. taldeko jakinarazpenak nabarmentzen dira, hau da, agente fisikoek eragindako gaixotasun profesionalak (hipoakusiak, gaixotasun muskuloeskeletikoak eta ahots-kordetako noduluak barne hartzen ditu), 759 jakinarazpenekin; ondoren datoz 4. taldeko substantziak arnasteak eragindako GPak (73 jakinarazpen) eta 6. taldeko agente kartzinogenikoek eragindako GPak (68 jakinarazpen).

Informaziorik gabeko 13 jakinarazpenetan ez da eragilea jaso, eta litekeena da 4., 5. eta 6. taldeetako kasuak biltzea.

Grafikoa 10. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua 1299/2006 EDko gaixotasun profesionalen taldeen arabera. EAE, 2024



11. grafikoak izapidetutako GPS jakinarazpenen diagnostikoak deskribatzen ditu, GNS-10aren arabera kodetuta. Diagnostiko klinikoen multzoak dira honakoak: pneumokoniosia, tumoreak, beste gaixotasun muskuloeskeletiko batzuk, gaixotasun dermatologikoak, gaixotasun infekziosoak eta beste arnasketa-gaixotasun batzuk.

Diagnostikorik ugarienak patologia muskuloeskeletikoak izan ziren (diagnostiko guztien % 64). Horien artean, epikondilitisa (261 jakinarazpen) eta karpoko kanalaren sindromea (151) nabarmendu ziren, eta ondoren sorbaldako lesioak, De Quervain-en sindromea eta "Beste gaixotasun muskuloeskeletiko batzuk" taldea.


2024an, 74 GPS jakinarazpen izapidetu ziren tumoreengatik; besteak beste, 38 mesotelioma; bronkio eta biriketako 19 neoplasia gaizto; eta sinu paranasaleko 12 tumore. Horiez gain, maskuriko 2 neoplasia gaizto, prostatako bat, gibel-kartzinoma bat eta larruazaleko beste bat izapidetu ziren.

Pneumokoniosien taldean, 41 jakinarazpen kudeatu ziren: 19 asbestoaren ondorioz; 19 silizea duen hautsari lotuta; eta 3 beste hauts ez-organiko batzuekin erlazionatuta.

Era berean, ahots-kordetako noduluak 16 jakinarazpen eta beste arnasketa-gaixotasun batzuen 3 jakinarazpen izapidetu ziren, baita tumorea ez den pleura-alterazioari buruzko 24, asmari buruzko 22 eta gaixotasun dermatologikoen gaineko 41 ere.

Gaixotasun infekziosoen artean, nabarmentzekoa da 13 jakinarazpen sarna-diagnostikoei zegozkiela, bat leptospirosiari eta beste bat erisipeloideari.

Grafikoa 11. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua GNS ohikoenen arabera. EAE, 2024.



Diagnostikoen maiztasunean, diferentziak aurkitu ziren sexuaren arabera, 10. taulan ikus daitekeen bezala.

Emakumeen artean, patologiarik ohikoenak hauek izan ziren: epikondilitisa (132), karpoko tunelaren sindromea (95), sorbaldako lesioak (39), De Quervain-en sindromea (43) eta beste gaixotasun

muskuloeskeletiko batzuk (30). Horrez gain, 25 gaixotasun dermatologiko eta ahots-kordetako 13 nodulu erregistratu ziren.

Bai gizonen bai emakumeen kasuan, epikondilitisa (129) izan zen patologiarik ohikoena. Ondoren, hipoakusia (116), karpoko kanalaren sindromea (56), tumoreak (67), sorbaldako lesioak (40) eta pneumokoniosiak (40). De Quervain-en sindromearen 24 jakinarazpen, beste gaixotasun muskuloeskeletiko batzuen 38 kasu eta tumorea ez den pleura-alterazioaren 16 kasu izapidetu ziren. Tumoreen artean, mesoteliomak dira nagusi.

Taula 10. *Izapidetutako jakinarazpenen kopurua GNS ohikoenen eta sexuaren arabera. EAE, 2024*

	Gizona	Emakumea
EPIKONDILITISA	129	132
KARPOKO KANALAREN SINDROMEAK	56	95
SORBALDAKO LESIOAK	40	39
DE QUERVAIN-EN S.	24	43
BESTE GAIXOTASUN MUSKULOESKELETIKO BATZUK	38	30
HIPOAKUSIA	116	2
BESTE TUMORE BATZUK	23	1
MESOTELIOMAK	34	4
SINU PARANASALETAKO TUMOREAK	10	2
PNEUMOKONIOSIAK	40	1
TUMOREA EZ DEN PLEURA-ALTERAZIOA	16	0
ASMA	10	12
GAIXOTASUN DERMATOLOGIKOAK	16	25
NODULUAK AHOTS-KORDETAN	3	13
GAIXOTASUN INFEKZIOSOAK	8	7
BESTE ARNASKETA-GAIXOTASUN BATZUK	3	0

3.2.5 Agente eragilea

Jakinarazpen gehienetan diagnostikoa gaixotasun muskuloeskeletikoa izan zenez, agente eragile nagusia hau izan zen: *postura behartuak eta mugimendu errepikakorrak*. 11. taulan ikus daitekeenez, horien gaineko 287 jakinarazpen izan ziren gizonen artean, eta 339 emakumeen artean. Bigarren agente ohikoena *zarata* izan zen, 116 jakinarazpen eraginik gizonen artean eta 2 emakumeen artean. Ondoren, *asbestoa*, 86 jakinarazpenekin gizonen artean eta 3 jakinarazpenekin emakumeen artean.

Taula 11. *Izapidetutako jakinarazpenen kopurua agente eragilearen eta sexuaren arabera. EAE, 2024*

	Gizona	Emakumea
Postura behartuak eta mugimendu errepikakorrak.	287	339
80 A dezibeleko zarata jarraitua edo handiagoa.	116	2
Ahotsaren ahalegin iraunkorrek arrazoi profesionalen zioz	3	13
Asbestoa (amianto)	86	3
Nikela eta nikel-konposatuak		3
Silizea	18	
Zur gogorren hautsa	7	1

Pisu Baxuko substantziak	13	18
Pisu Altuko Substantziak	5	9
Beste agente kimiko batzuk	24	10
Leptospira	1	
<i>Sarcoptes scabiei</i>	5	3
Oharretan zehaztu beharrekoa	2	1
Zoonosi ez-espezifikoak		1
Prebentzio, laguntza mediko eta pertsonen arretako lanaren ziozko infekzioak	3	4

GPSen sorburuari dagokionez, 12. taulan ikus daitekeenez, postura behartuen eta mugimendu errepikakorren ondoriozko jakinarazpenak Osakidetzatik iritsi ziren gehienbat (557), bai eta asbestoak eragindakoak ere (88).

Prebentzio-zerbitzuek, berriz, zarata agente eragile izandako 115 espediente abiarazi zituzten.


Taula 12. *Izapidetutako jakinarazpenen kopurua agente eragilearen eta sorburuaren arabera. EAE, 2024*

	Osakidetza	Prebentzio-zerbitzua
Postura behartuak eta mugimendu errepikakorrak.	557	69
80 A dezibeleko zarata jarraitua edo handiagoa.	3	115
Ahotsaren ahalegin iraunkorrak arrazoi profesionalen zioz	2	14
Asbestoa (amiantoa)	88	1
Pisu molekular baxuko substantziak	25	6
Pisu molekular altuko substantziak	13	1
Silizea	13	5
Beste agente kimiko batzuk	25	6
Nikela eta nikel-konposatuak	3	0
Zur gogorren hautsa	7	1
Leptospira	0	1
<i>Sarcoptes scabiei</i>	0	8
Zoonosi ez-espezifikoak	0	1
Prebentzio, laguntza mediko eta pertsonen arretako lanaren ziozko infekzioak	5	2
Oharretan zehaztu beharrekoa	3	0

3.2.6 Sektoreak

12. grafikoan ikusten da Gizarte Segurantzara bidalitako 974 jakinarazpenetatik % 54 zerbitzuen sektorekoak direla, % 35 industriaren sektorekoak, % 7 eraikuntzaren sektorekoak eta % 1 lehen sektorekoak. Jakinarazpenen % 7k ez zuten grabatuta EJSN bati lotutako enpresa bat, sektore bati esleitzea ahalbidetzen zuena, esposizioa enpresa batean baino gehiagotan eman zelako, enpresa ez delako existitzen, edo langileak autonomoak **edo** pentsiodunak direlako.

Grafikoa 12. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua sektorearen arabera. EAE, 2024



13. taulak erakusten duenez, zerbitzuen sektorean gaixotasun-talde guztien GPS jakinarazpenak jaso ziren. Industriaren sektorean, hipoakusiak nagusitu ziren; lehen sektorean, berriz, karpoko tunelaren sindromea izan zen ohikoena. Gainerakoetan, epikondilitisak izan ziren ugariak.

Tumoreen, pneumokoniosiaren eta tumorea ez den pleura-alterazioaren diagnostikoa duten jakinarazpen batzuk, kasu askotan, enpresa bati lotuta agertzen ez diren erretiratuei dagozkie; ez dago sektorerik ataleko jakinarazpenak dira.


Taula 13. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera. EAE, 2024

	Ez dago jasota	Eraikuntza	Industria	Lehen sektorea	Zerbitzuak
EPIKONDILITISA	3	13	80	1	164
KARPOKO KANALAREN SINDROMEA	3	7	42	3	96
SORBALDAKO LESIOAK	1	4	25		51
DE QUERVAIN-EN S.		5	14	1	47
BESTE GAIXOTASUN MUSKULOESKELETIKO BATZUK	1	4	20	1	40
HIPOAKUSIA		7	88		23
MESOTELIOMAK	19	1	5		13
SINU PARANASALETAKO TUMOREAK	3	2	2		5
BESTE TUMORE BATZUK	7	1	9		7
PNEUMOKONIOSIAK	4	4	24		9
TUMOREA EZ DEN PLEURA-ALTERAZIOA	7	1	4		4
ASMA		2	8		12
GAIXOTASUN DERMATOLOGIKOAK		2	17	1	21
GAIXOTASUN INFEKZIOSOAK			2		13
NODULUAK AHOTS-KORDETAN					16

BESTE ARNASKETA-GAIXOTASUN BATZUK	1				2
GAINERAKO PATOLOGIAK					2

13. grafikoan ikus daitekeenez, gizonen kasuan, jakinarazpen gehien izan zituen sektorea industria izan zen (jakinarazpen guztien % 48), eta ondoren zerbitzuen sektorea (% 35).

Grafikoa 13. Jakinarazpenen kopurua sektorearen arabera; gizonak. EAE, 2024



14. taulan ikus daitekeenez, gizonen kasuan, industriaren sektoreko patologiarik ohikoena epikondilitisa izan zen, eta, ondoren, hipoakusia. Zerbitzuen sektorean, berriz, epikondilitisa eta karpoko kanalaren sindromea nagusitu ziren.


Taula 14. Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera; gizonak. EAE, 2024

	Ez dago jasota	Eraikuntza	Industria	Lehen sektorea	Zerbitzuak
EPIKONDILITISA	2	13	57	1	56
KARPOKO KANALAREN SINDROMEA	2	6	23	2	23
SORBALDAKO LESIOAK		4	17		20
DE QUERVAIN-EN S.		4	10		10
BESTE GAIXOTASUN MUSKULOESKELETIKO BATZUK	1	3	17	1	15
HIPOAKUSIA		7	88		21
MESOTELIOMAK	18	1	4		11
SINU PARANASALETAKO TUMOREAK	3	2	2		3
BESTE TUMORE BATZUK	7	1	8		7
PNEUMOKONIOSIAK	4	3	24		9
TUMOREA EZ DEN PLEURA-ALTERAZIOA	7	1	4		4
ASMA		2	4		4
GAIXOTASUN DERMATOLOGIKOAK		2	12	1	1
GAIXOTASUN INFEKZIOSOAK			1		7
NODULUAK AHOTS-KORDETAN					3

BESTE ARNASKETA-GAIXOTASUN BATZUK	1				2
Gainerako patologia					1

Emakumeen kasuan, jakinarazpenen % 80 zerbitzuen sektorekoak dira, eta % 17 industriaren sektorekoak, 14. grafikoan ikus daitekeen bezala.

Grafikoa 14. Jakinarazpenen kopurua sektorearen arabera; emakumeak. EAE, 2024



15. taulan ikus daitekeenez, emakumeen kasuan epikondilitisa eta karpoko kanalaren sindromea izan ziren diagnostiko ohikoenak kasuistika handieneko sektoreetan: zerbitzuetan eta industrian.

Taula 15. Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera; emakumeak. EAE, 2024

	-Informaziorik gabe	Eraikuntza	Industria	Lehen sektorea	Zerbitzuak
EPIKONDILITISA	1		23		108
KARPOKO KANALAREN SINDROMEA	1	1	19	1	73
SORBALDAKO LESIOAK	1		8		31
DE QUERVAIN-EN S.		1	4	1	37
BESTE GAIXOTASUN MUSKULOESKELETIKO BATZUK		1	3		25
HIPOAKUSIA					2
MESOTELIOMAK	1		1		2
SINU PARANASALETAKO TUMOREAK					2
TUMOREAK	1		1		4
PNEUMOKONIOSIAK		1			
ASMA			4		8
GAIXOTASUN DERMATOLOGIKOAK			5		20
GAIXOTASUN INFEKZIOSOAK			1		6


NODULUAK AHOTS-KORDETAN					13
BESTE PATOLOGIA BATZUK	1				1

3.2.7 Ebazpenak

Analisi hau itxeko unean, izapidetutako 974 jakinarazpenen % 32 onartu dira, % 49 ez dira onartu eta % 19 erantzunaren zain daude.

Sexuen arteko diferentziak daude izapidetutako jakinarazpenen onarpenaren/ez onartzearen ehunekoari dagokionez, 15. grafikoan ikus daitekeen bezala. Onarpen hori % 30ekoa da gizonen kasuan, eta % 26koa emakumeen kasuan. Ez-onartzeak % 41 izan dira gizonen kasuan, eta % 55 emakumeenean.

Grafikoa 15. Izapidetutako jakinarazpen eta ebazpenen ehunekoa sexuaren arabera. EAE, 2024



16. taulan ageri dira bi sexuetako patologia ohikoenen ebazpenak. Aurreko urtearekin alderatuta, hipoakusia kontuan hartu da, 2024an bigarren ohikoena izan zelako gizonen kasuan.


Epikondilitisa onartua izan zen gizonen % 12an eta emakumeen % 15ean. Karpoko kanalaren sindromea, berriz, gizonen % 14an eta emakumeen % 26an onartu zen, eta hipoakusiak % 58an onartu ziren gizonen kasuan.

Taula 16. Epikondilitisaren eta karpoko kanalaren sindromearen jakinarazpenen kopurua, ebazpenaren eta sexuaren arabera. EAE, 2024

	Onartzea		Ez onartzea		Erantzunaren zain	
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea
EPIKONDILITISA	32	39	83	67	14	26
KARPOKO KANALAREN SINDROMEA	22	39	25	44	9	12
HIPOAKUSIA	69	1	34	1	13	

16. grafikoak izapidetutako jakinarazpenen kopurua eta haien gaineko ebazpenak erakusten ditu, sorburuaren arabera. Prebentzio Zerbitzutik iritsi diren eta izapidetu diren jakinarazpenen onarpena, guztira, % 53koa da, eta sorburua Osakidetzan dutenena, berriz, % 25ekoa.

Grafikoa 16. *Izapidetutako jakinarazpen eta ebazpenen guztizko kopurua sorburuaren arabera. EAE, 2024*



4. ONDORIOAK.

- Gaixotasun profesionalaren susmoaren jakinarazpen gehiago jaso dira 2024an (974) 2023an (791) baino.
- 2024an, emakumeen jakinarazpenen intzidentzia-tasa 2008an jakinarazpen-sistema hasi zenetik izandako handiena izan da.
- 2020tik, jakinarazle nagusia Osakidetzako medikuak izan dira (892 jakinarazpen 2024an, Prebentzio Zerbitzutik etorritako 240 jakinarazpenen aldean).
- Aurreko urtearekin alderatuta, 2024an Osakidetzatik etorritako jakinarazpenen kopurua % 5 murriztu da, eta, aldiz, Prebentzio Zerbitzutik etorritakoena ehuneko berean igo da.
- Gehikuntza egon da bai arreta espezializatuan sortutako jakinarazpenetan, bai lehen mailako arretan sortutakoetan. 2024. urtean, Osakidetzako langileen jakinarazpenen % 80 Lehen Mailako Arretatik etorri dira.
- 2024an, 14 Prebentzio Zerbitzuek izapidetu zituzten Gaixotasun profesionalaren susmoaren jakinarazpenak, prozedura hori oinarri hartuta. Jakinarazpen gehienak kanpoko prebentzio-zerbitzu bakar batetik jaso ziren.
- Jakinarazitako patologia guztien % 74 gaixotasun muskuloesketikoak izan ziren.
- 2024an jasotako 1.132 jakinarazpenetatik, 974 GPS jakinarazpen bidali ziren Gizarte Segurantzara, bertan baloratzeko (jakinarazpen guztien % 86).
- Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziko langileen 80 GPS jakinarazi dira, eta horietako 77 bidali dira Gizarte Segurantzaren Mutualitate Laguntzaileetara, baloratzeko.
- Epikondilitisa izan da izapidetutako GPSen diagnostikorik ohikoena, 261 jakinarazpenekin; ondoren, karpoko tunelaren sindromea, 151 jakinarazpenekin, eta hipoakusiak, 118ekin.
- 2024an, tumoreek eragindako GPSen 76 jakinarazpen izapidetu dira: 38 mesotelioma; bronkio eta biriketako 19 neoplasia gaizto; sinu paranasaletako 12 tumore; eta beste organo batzuetako 5 neoplasia.
- Zerbitzuen sektorea izan da 2024an GPS kopuru handiena izan duen sektorea (525 jakinarazpen), eta ondoren industriaren sektorea (340 jakinarazpen).
- Txosten hau idazteko datuak eskuratu diren datan, Gizarte Segurantzara 2024an bidalitako jakinarazpenen % 81ek jaso zuten GSML edo GSIN erakundearen erantzuna; horietatik % 32 onartu dira, eta % 49 ez dira onartu.
- Jakinarazpenen onarpenen ehunekoa % 19 izan da gizonen artean, eta % 12 emakumeen artean.

Prebentzio Zerbitzuetatik iritsi diren eta izapidetu diren jakinarazpenen % 53 eta Osakidetza-tatik iritsi direnen % 25 onartu dira.